

II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

DONEMILIAGAKO UDALA

2023ko apirilaren 19ko erabakiaren laburpena, zeinak jasotzen baitu garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko udal laguntzen 2023ko deialdia

BDNS(Identif.): 695754.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/695754>.

Deialdiaren xedea

garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak ekintzak finantzatzeko laguntzak ematea, Donemiliagako udalerritik elkartasunezko harremanak sendotzen laguntzeko.

Diruz laguntzekoak izango dira 2023an egiten diren garapenerako lankidetzak proiektuak.

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

– Garapen bidean dauden herrialdeetako herritarrei garatzen laguntzeko eta Donemiliagak dituen elkartasun harremanak sendotzeko garapenerako lankidetzak proiektuak, irabazteko xederik gabeko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek edo/eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek sustatutakoak.

– Erakunde eskatzaileek beren helburuen artean honako hauek izan behar dituzte: garapenerako lankidetzak jarduerak egitea, irabazteko xederik eza eta emandako diru sarrera guztiak garapenerako lankidetzak jardueretan eta gizarte egintzetan erabiltzea.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko entitateak eta pertsona fisikoak nahiz juridikoak, baldin eta Donemiliagako herriarekin zerikusirik zuzena duten bazkideak edo laguntzaileak badituzte eta deialdi honen xedearekin bat datozen proiektuak garatzen ari badira.

Deialdi honetatik berariaz baztertzen dira:

– Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren menpeko erakundeak eta zerbitzuak, eta aurrezki entitateak. Salbuespena: ikastetxeak ez dira baztertzen.

– Enpresak eta irabazteko xedea duten bestelako entitate guztiak.

– 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera onuradun izatea debekatuta duten entitateak.

– Emakume eta gizonak berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten duten entitateak, ondoko hauek izan ezik: sexu bereko kideez osatuta egonda ere, helburu nagusiz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrezkoak sustatzea duten entitateak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2023ko apirilaren 19an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hauxe da: 231.481.005. Partida horren zuzkidura, gehienez, 8.333,18 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko irailaren 8an amaituko da.

Erdoña, 2023ko maiatzaren 17a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO